



Herrí-Kontuen  
Euskal Epaitegia  
Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

**Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak  
1998ko urriak 25  
Hautes-Kontabilitatea**

**Elecciones al Parlamento Vasco  
25 de octubre de 1998  
Contabilidad Electoral**

---

Vitoria-Gasteiz, 1999ko martxoaren 11an  
Vitoria-Gasteiz, a 11 de marzo de 1999



## AURKIBIDEA/ÍNDICE

I.	SARRERA .....	3
I.1	Lanaren helburuak eta norainokoa .....	3
I.2	Erabaki ezargarriak .....	5
I.3	Hauteskunde emaitzak .....	5
I.4	Gastuerako gehieneko muga .....	6
II.	EMAITZAK .....	7
II.1	Iritzia .....	7
II.2	Dirulaguntza publikoa .....	7
II.3	Dirulaguntzen aurrerakinak eta jasotzeko dauden dirulaguntzak .....	10
III.	HAUTES-KONTUAK .....	12
III.1	Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV) .....	12
III.2	Partido Popular (PP) .....	13
III.3	Euskal Herriarrok (EH) .....	14
III.4	Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSE-EE) .....	15
III.5	Eusko Alkartasuna (EA) .....	16
III.6	Izquierda Unida-Ezker Batua (IU-EB) .....	16
III.7	Unidad Alavesa (UA) .....	17
IV.	HAUTES-KONTUEN LABURPENA .....	18
V.	GOMENDIOAK .....	19
V.1	Zuzeneko igorpenak eragindako gastuak .....	19
V.2	Gastuen gehieneko muga .....	19
I.	INTRODUCCIÓN .....	21
I.1	Objetivos y alcance del trabajo .....	21
I.2	Disposiciones aplicables .....	23
I.3	Resultados electorales .....	23
I.4	Límite máximo de gastos .....	24
II.	CONCLUSIONES .....	25
II.1	Opinión .....	25
II.2	Subvención pública .....	25
II.3	Adelantos de subvenciones y subvenciones pendientes de recibir .....	28



<b>III. CUENTAS ELECTORALES .....</b>	<b>30</b>
III.1 Eusko Aderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV) .....	30
III.2 Partido Popular (PP) .....	31
III.3 Euskal Herritarrok (EH).....	32
III.4 Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSE-EE) .....	33
III.5 Eusko Alkartasuna (EA).....	34
III.6 Izquierda Unida-Ezker Batua (IU-EB) .....	34
III.7 Unidad Alavesa (UA).....	35
<b>IV. RESUMEN CUENTAS ELECTORALES .....</b>	<b>36</b>
<b>V. RECOMENDACIONES .....</b>	<b>37</b>
V.1 Gastos por envío directo .....	37
V.2 Límite máximo de gastos .....	37



## I. SARRERA

### I.1 LANAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legeari jarraiki, 15/1998 Legeak aldatutakoa (aurrerantzean ELHL), Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) 1998ko urriaren 25ean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeeetan aulkia eskuratu zituzten edo hautes-dirulaguntza eskatu zuten kandidaturen sarrera eta gastuen kontabilitatea fiskalizatu du.

Indarreko legediaren arabera gauzatu den fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatu ditu:

**1.-ELHLren 140. atalak hautes-sarrera eta gastuen kontabilitatea aurkezteko moduaz finkatzen dituen baldintzak bete izana.**

**2.-Ireki edo gaitu diren kontuak, Hautes-Batzordeari jakinarazitakoak, dirua biltzeko eta hautes-gastuak ordaintzeko erabiliak izan direla, ELHLren 141 eta 142.2. atalak agintzen dituzten zehaztapenen arabera.**

**3.-Aurrez sortutako hautes-gastuak ordaintzeko irekitako kontuetako saldoekin egiten den erabilera, botazio ondoko 90 eguneko epean (ELHLren 143.3 atala).**

**4.-Norbanakoek egiten dituzten ekarpenetan izena, helbidea eta estatuko nortasun agiriaren edo pasaportearen zenbakia egiaztatzea (ELHLren 143.1 atala) eta ekarpen horien gehieneko muga -1.396.000 pezetakoa- bete izana; muga hori 145.4 atalak ezartzen du eta 1998ko irailaren 2ko Agindu bitartez gaunkotu da.**

**5.-Hautes-prozesuari aurre egiteko alderdiek aurkeztutako baliabideen jatorria (ELHLren 143.3. atala).**

**6.-Ondotik zerrendaratuko diren entitateetatik erorritako fondoak hautes-kontuetan sartzeko debekua bete izana, alegia, zeinahi administrazio edo batzorde publikotatik, erakunde autonomo edo estatuaren menpeko direnetatik, Estatu, Autonomia Erkidego, probintzi edo udalerrien jabetzako diren herri alorreko enpresetatik, ekonomia mistoa duten enpresetatik eta indarreko kontratu bitartez, administrazio publikoren batentzat zerbitzuak eman edo hornidura edo obrak egiten dituzten enpresetatik (ELHLren 145.1 atala).**

**7.-Atzerriko erakunde edo pertsonek, edo helbidea Autonomia Erkidegotik kanpo dutenek edo legez kontrako jarduerek ekarritako fondoak aurkezteko debekua bete izana (ELHLren 145.2 eta 3. atala).**



**8.-**Eusko Jaurlaritzak ematen dituen hautes-dirulaguntzen aurrerakineta gehieneko muga errespetatzea; izan ere, aurrerakin horiek Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkariak atera zituzten kandidaturei ematen zaizkie. Aurreratzen den diru kopuruak ezingo du kandidatura horrek berak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan eskuraturako dirulaguntzaren ehuneko hogeita hamarra gainditu (ELHLren 144.2 atala).

**9.-**Bigarren aurrerakinaren zenbatekoa dirulaguntzen %90aren pareko da; kopuru hori kandidaturek eskuratzenten dituzten hautes-emaitzan araberakoa da, hala badagokio, aurreko ataleko aurrerakina gutxituz (ELHLren 144.7 atala).

**10.-**Hauteskundeetarako deia egiten denetik hautagaiak izendatzen diren bitartera arteko alidian hautes-gastuak gauzatu direla egiaztatzea, ELHLren 146. atalak agintzen duena betez.

**11.-**ELHLren 147. atalak agintzen du inongo alderdi, federakunde, koalizio edo hautesle taldek ezingo duela finkatutako mugak gaindituko dituen gasturik egin. Barne Sailburuak ebatzitako 1998ko irailaren 9ko Aginduak kopuru hori 174.046.595 pezetan finkatzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren hiru hautes-barrutietan aurkezten direnentzat. Horrez gain, hautesleei propaganda, gutunazal eta papeletak edo hautes-publizitateko bestelako elementuak zuzenean eta pertsonalki igortzeak eragindako hautes-gastuak ere diruz laguntzen dira; halaxe, erreferentziagai den kandidaturak zerrenda aurkeztu eta aulkia eskuratu duen barrutietako bakoitzean, hautesle bakoitzeko hogeita bost pezeta ordainduko dira. Diruz lagundutako kopurua ez dago ELHLren 147. atalak aurreikusten duen muga barruan jasoa, atal honek hizpide duen jarduera egiaz gauzatu dela justifikatu beharko delarik (ELHLren 151.2 atala).

**12.-**Egindako gastuak justifikatu beharko dira, kontularitzako printzipio eta arauek eta merkataritza eta fiskalaritzakoek zehazten dituzten gutxieneko baldintzak bilduko dituzten agiri bitartez.



## I.2 ERABAKI EZARGARRIAK

- 5/1990 Legea, ekainaren 15eko, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa.
- 15/1998 Legea, ekainaren 19koa, ekainaren 15eko 5/1990 Legea aldatzeko dena, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa.
- Lehendakariaren abuztuaren 31ko 14/1998 Dekretua, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deia egiten duena.
- 1998ko irailaren 2ko Agindua, Ogasun eta Administrazio Publikoaren Sailburuarena, 5/1990 Legean bildutako kopuruak gaurkotzeari buruzkoa.
- 1998ko irailaren 9ko Agindua, Barne Sailburuarena, 1998ko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan hautes-gastuak mugatzeko finkatutako kopuruak zehazteari buruzkoa.
- 1998ko azaroaren 9ko Akordioa, Autonomia Erkidegoko Hautes-Batzordearena, 1998ko urriaren 25ean egindako Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen boto kontaketa orokorrari zegozkion emaitzak argitara ematea agintzen duena.

## I.3 HAUTESKUNDE EMAITZAK

1998ko azaroaren 9ko Hauteskunde Batzordearen akordio bitartez, lehiakide izan diren kandidaturek eskuratu dituzten emaitzak argitaratzen dira. Hona hemen, kontagarri diren boto eta aulkien kopurua, talde bakoitzaren dirulaguntza publikoak zehaztearren:

KANDIDATURA	ARABA		GIUZKOA		BIZKAIA		EUSKAL AUTONOMIA	
	BOTOAK	AULKIAK	BOTOAK	AULKIAK	BOTOAK	AULKIAK	ERKIDEGOA	AULKIAK
EAJ-PNV	36.923	6	88.857	6	224.542	9	350.322	21
PP	45.470	7	67.112	4	139.161	5	251.743	16
EH	20.567	3	103.057	7	100.377	4	224.001	14
PSE-EE	28.670	5	65.548	4	125.834	5	220.052	14
EA	10.718	1	56.821	4	41.096	1	108.635	6
I+EB	9.606	1	18.744	-	42.714	1	71.064	2
UA	14.305	2	520	-	913	-	15.738	2
Gainerako kand.	2.001	-	2.348	-	4.661	-	9.010	-
GUZTIRA	168.260	25	403.007	25	679.298	25	1.250.565	75



Hona hemen Hauteskunde Erroldaren Bulegoak mamitutako hautesleen errolda hauteskunde esparru bakoitzean:

LURRALDE HISTORIKOA	EUSKAL HERRIKO EGOIARRAK	ATZERRIKO EGOIARRAK	ERROLDAD GUZTRA
ARABA.....	242.263	1.920	244.183
GIPUZKOA.....	576.940	9.247	586.187
BIZKAIA.....	976.009	15.229	991.238
GUZTRA.....	1.795.212	26.396	(*)1.821.608

(\*) Hauteskunde zuzenketarako epeaz geroko 152 errolda egiaztagiri beraniazkoak barne hartzen ditu.

#### I.4 GASTUETARAKO GEHIENEKO MUGA

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 147. atalak agintzen duena betez eta Barne Sailburuaren 1998ko irailaren 9ko Aginduak agindutakoari jarraiki, 1998ko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan hautes-gastuak mugatzeko finkatutako kopuruak zehazteari buruzkoa, gastuek ezingo dituzte ondotik adierazten diren kopuruak gainditu; gastuak hautes-esparruen arabera bereizi ditugu:

	Pezeta
ARABA.....	37.556.529
GIPUZKOA.....	56.881.492
BIZKAIA.....	79.608.574

Euskal Autonomia Erkidegoaren hiru hautes-esparruen multzoan aurkeztutako talde, federakunde, koalizio edo hautes-multzoentzako hautes-gastuen muga 174.046.595 pezetakoa izango da.



## **II. EMAITZAK**

### **II.1 IRITZIA**

Gure lana egitean ondoko oztopo hauek izan ditugu:

- Alderdi politikoen kontabilitatearen gaineko fiskalizazio lana ez dagokio HKEEri, Kontuen Epaitegiari baizik (Estatukoari). Honenbestez, HKEEk ez du egiaztatu aurkeztu diren kontabilitateetan erregistratu gabeko bestelako hautes-gasturik izan den; orobat, ez du aztertu alderdi politikoen kontabilitatearen bitartez, legearen debeku edo mugak urratzen dituzten dirusarrerak bideratu ote diren.
- Ez dugu egiaztatzerik izan gauzazko ekarpenik egin den.
- ELHLren 142.3 atalak agintzen du hautes-gastu guztiak hauteskundeak igaro eta hurrengo 90 egunetan zehar ordaindu beharko direla. Kontabilitateak aurkeztekoko epea 60 egunekoa denez gero, HKEEk ez du hurrengo 30 egunetan egindako ordainketei buruzko informazioirik eskuratu.
- Orobak, ez da egiaztatzerik izan kontabilitateak aurkeztu diren datan ordaintzeko zeuden kopuruei aurre egiteko beharrezko dirufondoen jatorria zein izan den.

Epaitegi honen ustetan, lanaren garapenak izan dituen oztopoetatik erator zitezkeen ondorioak alde batera utzita, aurreko lerroaldeetan aipatu ditugunak, kandidaturek aurkeztutako hautes-kontuek egoki erakusten dituzte aitortutako sarrera eta gastuak; I.2 atalean azaldutako legezko erabaki ezargarriak ere egoki bete dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hautes-Batzordeari proposatzen diogu behin-betikotzat hartzeko II.2 atalean kalkulatutako dirulaguntza publikoen gehieneko mugak eta honenbestez, behin-betikotzat har daitezela II.3 atalean balioetsitako jasotzeko dauden dirulaguntza publikoak.

### **II.2 DIRULAGUNTZA PUBLIKOA**

Hautes-gastuen dirulaguntza Euskal Autonomia Erkidegoak ELHLren 151.1 atalaren arabera egiten du, hala nola:

- a. Hiru milioi pezeta Eusko Legebiltzarrean eskuratutako aulkia bakoitzagatik.
- b. Ehun pezeta kandidatura bakoitzak eskuratutako boto bakoitzagatik, beti ere gutxienez kideetako batek dagokion esparruan aulkia eskuratu badu.
- c. Bost milioi pezeta hautes-esparru bakoitzeko, hautes-esparru bakoitzeko gutxienez aulkia bat eskuratu dutenei.



Aurreko dirulaguntzez gain, hautesleei propaganda, gutunazal eta papeletak edo hautēspublizitateko bestelako elementuak zuzenean eta pertsonalki igortzeak eragindako hautes-gastuak ere diruz laguntzen dira; halaxe, erreferentziagai den kandidaturak zerrenda aurkeztu eta aulkia eskuratu duen barrutietako bakoitzeko hogeita bost pezeta ordainduko dira. Diruz lagundutako kopurua ez dago ELHLren 147. atalak aurreikusten duen muga barruan jasoa, atal honek hizpide duen jarduera egiaz gauzatu dela justifikatu beharko delarik.

Talde politiko bakoitzari dagozkion hautes-dirulaguntzen zenbatekoak ez dezake HKEEK justifikatutzat emandako hautes-gastuen kopurua gainditu (ELHLren 151.4. at.).

### Hautes-gastuen dirulaguntza

Aurreko arauak azaldutako hautes-emaitzei ezarriz gero, dirulaguntza publikoen gehieneko mugak ondotik adierazten den moduan banatzen dira:

HAUTES GASTUEN DIRULAGUNTZA				Pezeta
KANDIDATURA	AULKENGATIK	BOTOENGATIK	ORDEZKARIENGATIK	GUZTRA
EAJ-PNV .....	63.000.000	35.032.200	15.000.000	113.032.200
PP .....	48.000.000	25.174.300	15.000.000	88.174.300
EH .....	42.000.000	22.400.100	15.000.000	79.400.100
PSE-EE .....	42.000.000	22.005.200	15.000.000	79.005.200
EA .....	18.000.000	10.863.500	15.000.000	43.863.500
IU-EB .....	6.000.000	5.232.000	10.000.000	21.232.000
UA .....	6.000.000	1.430.500	5.000.000	12.430.500
GUZTRA	225.000.000	122.137.800	90.000.000	437.137.800

Araua ezartzeari dagokionez zera zehaztu behar da:

- Aurreko taulan azaldutako kandidatura guztiak hiru Lurralde Historikoetan aurkeztu dira.
- Kandidatura guztiek aitortu dituzten hauteskunde gastuek gehieneko dirulaguntzaren guztizko muga gainditzen dute.

### Hautesleei zuzenean eta pertsonalki igorpena egiteagatiko dirulaguntza

Aurrez azaldutako 151.2 atalaren interpretazioa Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak 1998ko irailaren 11n egindako bileran aztertu zuen eta honako erabaki hau hartu zuen:

"5/1990 Legearen 151.2 atala, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa, ekainaren 19ko 15/1998 Erreformari buruzko Legeak emandako erredakzioaren arabera, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoaren (LOREG) 175.3 eta 193.3



ataletan dago oinarritua eta atal hauen gainean Hauteskunde Batzorde Nagusiak (HBN) adierazpenak egin ditu. HBNren iritziaren arabera:

- Hautesle bakoitzeko dirulaguntza kalkulatzeko hauteskunde propaganda igorri zaion hauteslea hartu behar da kontutan.
- Hautes-propaganda eta publizitatea zuzenean eta pertsonalki igortzea postaz edo beste bide batez egin daiteke, egiaz igorri izana Zuzenbidean behar hainbateko den zeinahi bidez egiazta badaiteke. Justifikazioari dagokionez, kontratatzan diren enpresa edo enpresen ordainagiria(k) aurkez daite(z)ke, bai Posta Zebitzuarena, bai Zuzenbidean behar hainbateko den agiri bidezko beste zeinahi bide erabilita; bertan, jarduera hauek gauzatu izana azalduko da, egindako igorpen kopurua adierazi beharko delarik.
- Orobak, igorpena egin dela egiazatzeko Zuzenbidean behar hainbateko agiritzat ere har daiteke talde politiko bateko antolakuntza eta finantza idazkariek egindako egiaztagiria; bertan, dagozkion hautes-esparruetako hautesleei egiaz egindako igorpen kopurua adierazi beharko da, igorpena talde politikoaren berezko baliabideekin gauzatu denean".

Akordio hauek aplikatu direla egiaztatu du HKEEK alderdiek aurkeztutako jakinarazpenen bitartez; jakinarazpen horiek gastu egiaztagiriekin edo igorpena talde politikoaren berezko baliabideekin gauzatu denean antolakuntza eta finantza idazkariek egindako egiaztagiriekin alderatu da.

Ondoko taulan kandidatura bakoitzak gutxienez aulki bat lortu duen esparruan egindako igorpen zuzenak azaltzen ditugu eta ezargarria zaion gehieneko dirulaguntza

#### ZUZENEKO IGORPENARI DIRULAGUNTZA

KANDIDATURA	IGORPEN KOPURUA	DIRULAGUNTZA EZARGARRIA
EA-PMV.....	1.821.456	45.536.400
PP.....	1.821.456	45.536.400
EH.....	1.795.061	44.876.525
PSE-EE.....	1.821.070	45.526.750
EA.....	1.795.061	44.876.525
IUEB.....	1.218.166	30.454.150
UA.....	244.157	6.103.925
GUZTRA	10.516.427	262.910.675

Zuzeneko igorpenagatik kandidatura guztiekin aitortutako gastuek ezargarria den dirulagunza kopurua gainditzen dutela adierazi behar da.



## Erabateko dirulaguntza

Hautes-gastuek eragindako dirulaguntzari zuzeneko igorpenagatik ematen dena batuta eskuratzentz da. Hona hemen, kandidatura bakoitzari dagokiona:

KANDIDATURA	ERABATEKO DIRULAGUNTZA		Pezeta
	GASTUEN DIRULAGUNTZA	ZUZENEKO IGOR. DIRULAGUNTZA	
EAJ-PNV .....	113.032.200	45.536.400	158.568.600
PP .....	88.174.300	45.536.400	133.710.700
EH .....	79.400.100	44.876.525	124.276.625
PSE-EE .....	79.005.200	45.526.750	124.531.950
EA .....	43.863.500	44.876.525	88.740.025
IU-EB .....	21.232.000	30.454.150	51.686.150
UA .....	12.430.500	6.103.925	18.534.425
GUZTIRA .....	437.137.800	262.910.675	700.048.475

## II.3 DIRULAGUNTZEN AURRERAKINAK ETA JASOTZEKO DAUDEN DIRULAGUNTZAK

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 144. atalaren 2. idazatiak zera agintzen du: "Eusko Jaurlaritzak hautes-dirulaguntzen aurrerakinak emango dizkiete Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkarria lortu zuten talde politiko, federakunde, koalizio edo hautes-multzoei. Aurreratutako kopuruak ezin gaindituko du Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkarria lortu zuten talde politiko, federakunde, koalizio edo hautes-multzo berak jasotako dirulaguntzaren %30".

144. atalaren 7. idazatiak agintzen du hauteskundeak egin ondoren eta hautes-kontabilitatea Autonomia Erkidegoko Hautes-Batzordearen aurrean aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera hamabost eguneko epean, Ogasun Sail arduradunak administratzaile orokorreit bigarren aurrerakin bat emango diela; aurrerakin hori kandidaturei dagozkien dirulaguntza kopuruaren 100eko 90aren pareko izango da, lortutako hautes-ermitzen arabera; kopuru horri, hala badagokio, aurreko idazatian aipatutako aurrerakina murritzuko zaio.



Ondotik, 1998ko urriaren 25eko Hauteskundeetan ordezkaritza lortu zuten alderdi politiko eta koalizio bakoitzari dagokionez dirulaguntza publikoaren gehieneko muga, dirulaguntza aurrerakin eta jasotzeo dauden dirulaguntza publikoak azalduko ditugu:

KANDIDATURA	DIRULAGUNTZA			Pezeta
	MUGA	LEHENENGO AURRERAKINA	BIGARREN AURRERAKINA (*)	JASOTZEKO DIRULAGUNTZA
EAJ-PNV.....	158.568.600	33.879.003	108.836.157	15.853.440
PP .....	133.710.700	21.081.780	99.029.873	13.599.047
EH .....	124.276.625	0	111.848.961	12.427.664
PSE-EE.....	124.531.950	22.989.651	89.101.209	12.441.090
EA .....	88.740.025	17.652.648	62.217.242	8.870.135
IU-EB .....	51.686.150	16.256.650	30.243.350	5.186.150
UA.....	18.534.425	9.849.231	6.832.359	1.852.835
GUZTRA	700.048.475	121.708.963	508.109.151	70.230.361

(\*) Hauteskontabilitateetan jaso gabea, honek igori ondorengoa izateagatik.

Jasotzeko dagoen dirulaguntza ez da %10aren pareko, izan ere, Eusko Jaurlaritzak bigarren aurrerakina kalkulatzeko hautesleen errolda guztia erabiltzen baitu, berariazko errolda egiaztagiriak barne.



### III. HAUTES-KONTUAK

Ondotik aurkezten diren hautes-kontabilitateak kandidaturek igorri dituztenak dira; kontuak bereizirik aurkezu ez dituzten kandidaturetan publizitatea zuzenean eta pertsonalki igorri izanagatiko gastuak soilik bereizi dira. Gastuak kontzeptu ezberdinen artean banatzean ez direla homogenoak ikusi dugu.

#### III.1 EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV)

1998ko abenduaren 17an hautes-kontabilitatea honako hau da:

		Pezeta
Igorpen zuzen eta perts. gastuak (mailing)	64.850.337	Dirulaguntza aurrerakina.....
Publizitatea eta propaganda.....	77.532.492	Jasotzeko dagoen aurrerakina.....
Aretoen alokairua.....	1.955.965	Alderdiak egindako ekarpene.....
Langileriari ordainsariak .....	-	Norbanakoek egindako ekarpene ....
Garaio eta desplazamenduak .....	1.823.395	Epe motzeko banku-kredituak.....
Finantza gastuak.....	-	Finantza samerak: interesak.....
Askotariko gastuak.....	65.599.474	
<b>GASTUAK</b>	<b>211.761.663</b>	<b>SARRERAK</b>
Diruzaintza.....	3.871.617	Hartzekodunak.....
Zordunak .....	123.788.697	
	<b>339.421.977</b>	<b>187.667.700</b>
		151.754.277
		<b>339.421.977</b>

Jasotzeko dagoen dirulaguntza modura erregistratu den kopurua balioespen bati dagokio.

Hautes-kontabilitatea aurkezteko data hautes-kontuan interesak ordaindu aurrekoan denez gero, finantza sarrera kontzeptuan ez da inongo kopururik erregistratu.



### III.2 PARTIDO POPULAR (PP)

1998ko abenduaren 9an hautes-kontabilitatea honako hau da:

			Pezeta
Igorpen zuen eta perts. gastuak (mailing)....	46.026.488	Dirulaguntza aurrerakina.....	21.081.780
Publizitatea eta propaganda.....	93.730.590	Jasotzeko dagoen aurrerakina.....	112.628.920
Aretoen aldekarria.....	2.968.649	Alderdiaik egindako ekarpena.....	97.050.210
Langileriari ordainsariak .....	-	Norbanakoek egindako ekarpena .....	-
Garraio eta desplazamenduak.....	1.706.647	Epe motzeko banku-kredituak.....	100.000.000
Finantza gastuak .....	1.652.611	Finantza sarrerak: interesak.....	-
Askotariko gastuak .....	73.220.452		
<b>GASTUAK</b>	<b>219.305.437</b>	<b>SARRERAK</b>	<b>330.760.910</b>
Diruzaintza.....	36.206	Hartzekodunak.....	1.288.831
Zordunak .....	112.628.920		
Fidantzak.....	79.178		
	<b>332.049.41</b>		<b>332.049.741</b>

Jasotzeko dagoen dirulaguntza modura erregistratu den kopurua balioespen bati dagokio. Itunpeko kredituak berme modura jasotzeko dagoen dirulaguntza aurkezten du eta ondoko ezaugarriak ditu:

#### KREDITUA

Muga .....	100.000.000	Pezeta
Gauzatu zeneko data .....	98/10/2	
Mugaegun data .....	99/10/2	
Erabilitako kopuru gaineko interesa ...	%5	
Irekiera komisioa .....	%0,5	

Kalkulatu diren interesak ELHLren 146. atalaren arabera, dirulaguntza jasotzeko aurreikusi den datara arte sortutakoei dagozkie.

Hautes-kontabilitatea aurkezteko data hautes-kontuan interesak ordaindu aurrekoan denez gero, finantza sarrera kontzeptuan ez da inongo kopururik erregistratu.



### III.3 EUSKAL HERRITARROK (EH)

Lurralde Historiko bakoitzeko kontabilitate bat aurkezten du. 1998ko abenduaren 21ean horien baterakuntza honako hau da:

		Pezeta
Igorpen zuzen eta perts. gastuak (mailing)	46.740.760	Dirulaguntza aurrerakina.....
Publizitatea eta propaganda .....	48.742.863	Jasotzeko dagoen aurrerakina.....
Aretoen alokairua.....	7.578.987	Alderiak egindako ekarpene.....
Langilean ordainsariak .....	-	Norbanakoek egindako ekarpene ..... 5.750.000
Garraio eta desplazamenduak .....	1.537.316	Epe motzeko banku-kredituak..... 30.000.000
Finantza gastuak.....	774.301	Finantza sarrerak: interesak..... 18.205
Askotaniko gastuak.....	25.224.404	
<b>GASTUAK</b>	<b>130.598.631</b>	<b>SARRERAK</b> 35.768.205
Diruzaintza .....	20.727.293	Hartzekodunak..... 115.667.719
Zordunak .....	-	
Ridantzak.....	110.000	
	<b>151.435.924</b>	<b>151.435.924</b>

1998ko azaro eta abenduan alokatutako aretoei dagozkien 131.600 pezetako gastuak daude eta honenbestez, ez dira hautes-gastutzat hartu behar. Kopuru honek ez du sortutako dirulaguntzan eraginik.

1994ko urrian egin ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan ordezkaritzarik eskuratu ez zutenez gero ez dauka dirulaguntzaren aurrerakinagatiko sarrerarik.

Itunpeko maileguak berme modura jasotzeko dagoen dirulaguntza aurkezten du eta ondoko ezaugarriak ditu:

#### KREDITUA

Muga .....	30.000.000	Pezeta
Gauzatu zeneko data .....	98/109	
Mugægun data .....	99/109	
Erabilitako kopuru gaineko interesa ...	%6,12	
Irekiera komisioa .....	%1	

Kalkulatu diren interesak ELHLren 146. atalaren arabera, dirulaguntza jasotzeko aurreikusi den datara arte sortutakoei dagozkie.



### III.4 PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI-EUSKADIKO EZKERRA (PSE-EE)

Igorpen zuzen eta pertsonalerako kontabilitate bat aurkezten du eta beste bat gainerako gastuetarako. 1998ko abenduaren 16an horien baterakuntza honako hau da:

		Pezeta	
Igopen zuzen eta perts. gastuak (mailing)*.....	45.527.221	Dirulaguntza aurrerakina.....	22.989.651
Publizitatea eta propaganda .....	92.764.649	Jasotzea dagoen aurrerakina.....	101.547.799
Aretoen alokairua .....	1.128.461	Alderdiak egindako ekarpenea.....	52.540.000
Langileen ordainsariak.....	-	Norbanakoek egindako ekarpenea .....	-
Garraio eta desplazamenduak.....	11.941.725	Epe motzeko banku-kredituak.....	102.000.000
Finantza gastuak.....	1.070.458	Finantza samerak: interesak.....	-
Askotariko gastuak.....	24.635.573		
<b>GASTUAK</b>	<b>177.068.087</b>	<b>SARRERAK</b>	<b>279.077.450</b>
Diruzaintza.....	1.744.124	Hartzekodunak.....	1.282.560
Zordunak.....	101.547.799		
	280.360.010		280.360.010

(\*) Finantza gastuei eta kreditua galizatzean dagozkion 907.221 pezeta barne hartzen ditu.

Jasotzea dagoen dirulaguntza modura erregistratu den kopurua balioespen bati dagokio.

Itunpeko kredituek berme modura jasotzea dagoen dirulaguntza aurkezten dute eta ondoko ezaugarriak dituzte:

#### KREDITUA

Muga .....	102.000.000	Pezeta
Gauzatu zeneko data .....	98/10/1	
Mugaegun data .....	99/4/1	
Erabilitako kopuru gaineko interesa .....	%5,25	
Irekiera komisioa .....	%0,5	

Kredituen zenbatekotik 100.306.750 pezeta erabili ziren, 1.693.250 pezeta diruzaintza modura hartuz.

Kalkulatu diren interesak ELHLren 146. atalaren arabera, dirulaguntza jasotzea aurreikusi den datara arte sortutakoei dagozkie.



### III.5 EUSKO ALKARTASUNA (EA)

Hona hemen 1998ko abenduaren 3an hautes-kontabilitatea:

		Pezeta
Igorpen zuen eta perts. gastuak (mailing) (*)	44.963.597	Dirulaguntza aurrerakina.....
Publizitatea eta propaganda .....	50.913.516	71.091.677
Aretoen alokairua .....	2.138.513	Jasotzea dagoen aurrerakina.....
Langileniari ordainsariak .....	-	Alderdiak egindako ekarpene.....
Garaio eta desplazamenduak .....	4.488.151	Norbanakoek egindako ekarpene.....
Finantza gastuak .....	-	Epe motzeko banku+kredituak.....
Askotariko gastuak .....	2.966.817	Finantza sarrerak: interesak.....
<b>GASTUAK</b>	<b>105.470.594</b>	<b>SARRERAK</b>
Diruzaintza .....	10.691.567	Hartzekodunak.....
Zordunak .....	71.091.677	47.504.397
	<b>187.253.838</b>	<b>187.253.838</b>

(\*) Langileriari egindako ordainketa eta lansari kontzeptuan 1.136.593 pezeta barne hartzen ditu.

Jasotzea dagoen dirulaguntza modura erregistratu den kopurua balioespen bati dagokio.

### III.6 IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA (IU-EB)

1998ko abenduaren 25ean hautes-kontabilitatea honako hau zen:

		Pezeta
Igorpen zuen eta perts. gastuak (mailing) .. (*)	35.100.098	Dirulaguntza aurrerakina.....
Publizitatea eta propaganda .....	40.737.782	35.417.600
Aretoen alokairua .....	8.640.473	Jasotzea dagoen aurrerakina.....
Langileniari ordainsariak .....	1.096.226	Alderdiak egindako ekarpene.....
Garaio eta desplazamenduak .....	4.510.147	Norbanakoek egindako ekarpene.....
Finantza gastuak .....	1.269.510	Epe motzeko banku+kredituak.....
Askotariko gastuak .....	3.650.782	Finantza sarrerak: interesak.....
<b>GASTUAK</b>	<b>95.005.018</b>	<b>SARRERAK</b>
Diruzaintza .....	18.027.022	Hartzekodunak.....
Zordunak .....	35.417.600	65.456.807
	<b>148.449.640</b>	<b>148.449.640</b>

(\*) Finantza gastuei eta kredituai gauzatzeari dagozkion 735.715 pezeta barne hartzen ditu.

Jasotzea dagoen dirulaguntza modura erregistratu den kopurua balioespen bati dagokio.



Itunpeko kredituak berme modura jasotzeako dagoen dirulaguntza aurkezten du eta ondoko ezaugarriak ditu:

**KREDITUA**

Muga .....	35.000.000	Pezeta
Gauzatu zeneko data .....	98/12/9	
Mugaegun data .....	02/12/9	
Erabilitako kopuru gaineko interesa ...	%6,5	
Irekiera komisioa .....	%1	

Finantza gastuek kreditua amortizatu arte erabilitako saldoak sortutako interesen balioespresa besarkatzen du. ELHLren 146.g atalak interes horiek dirulaguntza jaso arte hautes-gastutzat hartzea bideratzen du; horrek 1.124.000 pezetako gastu soberakina erregistratzea eragin du. Kopuru honek ez du eraginik sortutako dirulaguntzan.

### **III.7 UNIDAD ALAVESA (UA)**

1998ko abenduaren 16an hautes-kontabilitatea honako hau da:

			Pezeta
Igorpen zuzen eta perts. gastoak (mailing)	6.230.190	Dirulaguntza aurrerakina.....	9.849.231
Publizitatea eta propaganda .....	29.192.539	Jasotzeako dagoen aurrerakina.....	-
Aretoen alokairua .....	-	Alderdiak egindako ekarpenea.....	48.327.770
Garraio eta desplazamenduak .....	-	Epe motzeko banku-kredituak.....	-
Langileari ordainsariak .....	3.499.192	Norbanakoek egindako ekarpenea .....	-
Finantza gastoak .....	1.630	Finantza sarrerak: interesak .....	-
Askotariko gastoak .....	19.253.450		
<b>GASTOS</b>	<b>58.177.001</b>	<b>SARRERAK</b>	<b>58.177.001</b>
Diruzaintza .....	-	Hartzekodunak .....	-
	<b>58.177.001</b>		<b>58.177.001</b>

Hautes-kontabilitatea aurkezteko data hautes-kontuan interesak ordaindu aurrekoan denez gero, finantza sarrera kontzeptuan ez da inongo kopururik erregistratu.



#### IV. HAUTES-KONTUEN LABURPENA

Ondoko taulan kandidaturen hautes-kontuak erakutsiko ditugu eta honako hau barne hartu dugu: *gastuak guztira, hautes-gasto kontzeptuan eta hautesleei zuzeneko igorpena egiteagatik dagozkien dirulaguntzak eta norbanakoek egindako ekarpenak; era honetan, alderdiak aurregin behar duen defizita eskuratzentz da. Gainera, alderdiek kontabilitateak aurkeztutako datan egindako ekarpenak azalduko ditugu:*

	EAJ-PNV	PP	EH	PSE-EE	EA	IU-EB	UA
Gastuak guztira.....	211.761.663	219.305.437	130.598.631	177.068.087	105.470.594	95.005.018	58.177.001
Sarrerak:							
1. aurrerakina.....	33.879.003	21.081.780	-	22.989.651	17.652.648	16.256.650	9.849.231
2. aurrerakina.....	108.836.157	99.029.873	111.848.961	89.101.209	62.217.242	30.243.350	6.832.359
Jasotzeko dirulag.....	15.853.440	13.599.047	12.427.664	12.441.090	8.870.135	5.186.150	1.852.835
Norbanak, ekarpena.....	-	-	5.750.000	-	-	521.000	-
Finantza sarrerak .....	-	-	18.205	-	5.116	-	-
DEFIZITA/SUPERABITA	(53.193.063)	(85.594.737)	(553.801)	(52.536.137)	(16.725.453)	(42.797.868)	(39.642.576)
Alderdiaren ekarp.....	30.000.000	97.050.210	-	52.540.000	51.000.000	10.447.583	48.327.770
ALDEA	(23.193.063)	11.455.473	(553.801)	3.863	34.274.547	(32.350.285)	8.685.194



## V. GOMENDIOAK

### V.1 ZUZENEKO IGORPENAK ERAGINDAKO GASTUAK

151.2 atalak adierazten du "horrez gain, hautesleei propaganda, gutunazal eta papeletak edo hautes-publizitateko bestelako elementuak zuzenean eta pertsonalki igortzeak eragindako hautes-gastuak ere diruz lagunduko dira; halaxe, erreferentziagai den kandidaturak zerrenda aurkeztu eta aulkia eskuratu duen barrutietako bakoitzean, hautesle bakoitzeko hogeita bost pezeta ordainduko dira. Diruz lagundutako kopurua ez da ELHLren 147. atalak aurreikusten duen muga barruan jasoa egongo".

Atal honen interpretazioa Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak (AEHB) 1998ko irailaren 11n egindako bileran aztertu zuen; hortik eratorritako akordioak II.2 atalean azaldu ditugu.

Hartutako akordioan azaltzen bada ere zer den hautesleko dirulaguntza eta nola justifikatu behar diren gastu horiek, ez da behar hainbat deskribatzen zein gastu egotzi behar diren, batik bat, gastua berezko baliabideekin egiten bada, esate baterako:

- Beharrezko dieta eta bidai gastuak.
- Bazkariak.
- Zuzeneko igorpenetarako langileria.
- Publizitaterako zirrorroak sortzea.
- Hautagaiei argazkiak, e.a.

Konzeptu honek biltzen dituen gastuak, berariazko dirulaguntza bati atxikiak daudenak, zehatzago arautu behar dira, egungo zehazgabetasuna gaindituz; izan ere, 1998ko urriaren 25eko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan kandidaturek aitortutako gastu guztiak jaso beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa gainditzen badute ere, litekeena da hurrengo hauteskundeetan interpretazio anitz izateko bide ematea.

### V.2 GASTUEN GEHIENEKO MUGA

ELHLren 147. atalak hautes-gastuen gehieneko muga arautzen du eta hauteskunde bakoitzean Barne Sailburuak emandako agindu bitartez eguneratu egiten da; 1994 eta 1998an egin ziren hauteskundeetarako gehieneko muga, hurrenez hurren, 154.603.279 eta 174.046.595 pezetakoa izan zen; honek %13ko igoera egiten du. Hala eta guztiz ere, ELHLri eman zaion idazketa berriaren arabera, 151.2 atalak agintzen du igorpen zuzen eta pertsonalak eragindako gastuak ez direla muga honen eraginpean egongo.

Honela, bada, 1994 eta 1998ko hauteskundeetan aulkia lortu zuten kandidaturek aitortutako hautes-gastuak, hurrenez hurren, 651.383.556 eta 997.386.431 pezetakoak izan ziren, hau da, %53ko igoera egiten duela. Kandidaturek eskuratutako dirulaguntza publikoak, 1994 eta 1998an, hurrenez hurren, 479.518.741 eta 699.807.750 pezetakoak izan dira, %46ko igoerarekin.



Kandidaturek egin behar dituzten gastu guztiak hauteskunde bakoitzeko Barne Sailburuak finkatzen dituen mugetara biltzea gomendatzen dugu, zein kontzeptutarako erabiltzen den alde batera utzita.



## I. INTRODUCCIÓN

### I.1 OBJETIVOS Y ALCANCE DEL TRABAJO

De acuerdo con la Ley 5/1990 de Elecciones al Parlamento Vasco modificada por la Ley 15/1998 (en adelante LEPV), el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia (TVCP/HKEE) ha fiscalizado la contabilidad de ingresos y gastos de las candidaturas que obtuvieron escaños en las elecciones al Parlamento Vasco del 25 de octubre de 1998, o que solicitaron adelanto de la subvención electoral.

La fiscalización, de acuerdo con la normativa vigente, ha consistido en la verificación de los siguientes extremos:

**1.-El cumplimiento de las condiciones que establece el artículo 140 de la LEPV sobre la forma de presentación de la contabilidad de ingresos y gastos electorales.**

**2.-La comprobación de que las cuentas abiertas o habilitadas, comunicadas a la Junta Electoral, han sido utilizadas por las candidaturas para la recaudación de fondos y el pago de gastos electorales, con las especificaciones que establecen los artículos 141 y 142.1 y 2 de la LEPV.**

**3.-La disposición de los saldos de las cuentas abiertas para pagar gastos electorales previamente contraídos, dentro del plazo de 90 días siguientes al de la votación (artículo 142.3 de la LEPV).**

**4.-La evidencia, en las aportaciones de particulares del nombre, domicilio y número del documento nacional de identidad o pasaporte en el acto de la imposición (artículo 143.1 de la LEPV) y el cumplimiento del límite máximo de dichas aportaciones señalado en el artículo 145.4, actualizado en la Orden de 2 de setiembre de 1998, en 1.396.900 de pesetas.**

**5.-La procedencia de los recursos aportados por los partidos para sufragar el proceso electoral (artículo 143.3 de la LEPV).**

